

Garraioetako eta merkataritzako lanak

Garraioa

Gertuko edo urruneko leku batetik bestera pertsonak edo salgaiak eramateari deritzo **garraioa**.

Leku batetik bestera joateko, bidaiatzeko edo produktuak edo salgaiak batetik bestera eramateko, **garraiobideak** erabiltzen ditugu.

Lehorrekoak, itsasokoak edo airekoak izan daitezke.

UI

1

2

Lehorreko garraioa



Erabiliena da. Banakako ibilgailuak (autoa, kamioia, motorra, bizikleta) edo ibilgailu kolektiboak (autobusa, tren, metroa edo tranbia) erabiltzen dira. Azken horiek guztiak **geltokietan** hartzen dira.

Itsasoko garraioa



Itsasontzietan egiten da, ibaietan edo itsasoetan zehar. Pertsona asko edo salgai astunak edo handiak garraiatzeko erabiltzen da. Itsasontziak normalean **portuetan** lehorreratzen dira.

Aireko garraioa



Hau da garraiobiderik azkarrena. Airez egiten da, hegazkin eta helikopteroetan, eta oso urrunera egiten dute hegan. Hegazkinak aireratzen eta lurreratzeko diren tokiari **aireportu** deritzo.

Eraman termino bakoitza dagokion irudira.

Marinela	Bagoia	Portua	Gidariak	Errepidea	Hegazkina	Trenbidea
Tren-geltokia	Trenbideak	Kontrol-dorrea	Autobus-geltokia	Aireportua	Ontzia	Pilotua









Idatzi zer garraiobide dagokion esaldi bakoitzari.

Aireko garraiobidea.

Pertsonak garraiatzen dituen lehorreko talde-garraiobidea, errepideetatik doana.

Itsasoko garraiobidea.

Pertsonak eta salgaiak garraiatzen dituen lehorreko garraiobidea, trenbideetatik doana.

Pertsonak garraiatzen dituen lehorreko eta hiriko talde-garraiobidea, lurpeko trenbideetatik eta tuneletatik doana.

itsasontzia

hegazkina

trena

metroa

autobusa

Merkataritza

Produktu-mota oro saldu eta erosteko jarduerara adierazten du **merkataritza** hitzak.

Merkatariak arduratzen dira jarduera horretaz, eta saltzaile ere esaten zaie. Produktuak erosten dituztenak **erosleak** dira.

Jarduera honen barnean, barne-merkataritza eta kanpo-merkataritza bereizten dira.

- **Barne-merkataritza** herrialdearen barnean egiten da.
- **Kanpo-merkataritza** herrialdeen artean egiten da. Produktuak beste herrialde batean erosten ditugunean, **inportatu** egiten ditugu. Eta kanpoan saltzen ditugunean, **esportatu**.

Merkataritza-jarduera askotariko establezimendu edo saltokietan egin daiteke.

Osatu merkataritzari buruzko testua, falta diren hitzak idatziz.

Merkataritza edozein produktu erostea eta da.

edo kanpokoia izan daiteke.

Barneko merkataritza beraren barnean egiten da.

merkataritza zenbait herrialderen artean egiten da.

Barnekoa saltzea kanpo herrialde

Osatu, falta diren hitzak idatziz.

Merkataritza herrialde baten barnean egiten denean, da.

Salerosketa herrialdeen artekoa denean, da.

Beste herrialde bati produktuak eta ondasunak saltzeari esaten zaio, eta
beste herrialde bati produktuak eta ondasunak erosteari, .

merkataritza Kanpo barne merkataritza

inportatu esportatu